

KIZKI

IPUINA-~~A~~

KARAKTEREAK: 6783

AZKEN MEZUAREN ZAIN

Nire izena Kizkitza da. Mundu guztiak dio izen arraro eta itsusia dela, baina inbidia besterik ez da! Nire izenarekin oso gustura nago. Betidanik, pentsatu izan dut mutila izango banintz oso ederra izango nintzatekeela, nire aita bezalaxe. Baina ez naizenez, beste gauza onak ere baditudala pentsatu beharra daukat. Begi marroi ziztrinekin konformatuko naiz, baita ile luze eta kizkurrarekin ere, a zer nolako lanak ditudan ilea orrazteko! Izaeraz zekena naiz. Onartuko dut amorrua sorrarazten didala nire liburuak elkarbanatzeak. Nire gelako Arantxa nagiarri, askotan gertatzen zaion bezala, "ahaztu" egin omen zaio gaur ere Gizarteko liburua ekartzea; berak ere ekar ditzala etxetik demontre! Guztiok egiten dugun bezala ...

Lasarteko instituturik hoberenean ikasten dut: eraikin berri eta modernoa, irakasle zorrotz baina laguntzeko prest daudenak, futbol zelai, frontoi, eta bi saskibaloiko zelai dituen jolastoki ikaragarria ... Han lagun maitagarri pila bat dut, baina baita gorroto dudan bat ere, Alaia izenekoa. Izan ere, zerrenda beltzean apuntatua dut, bertan honelako pertsonak baitaude; hau da, batere gustatzen ez zaizkidanak.

Bestalde, adin honetan, normala den bezala mutil bat gustuko dut, Iñaki izenekoa. Kriston mutil puska da. Begi urdin


distiratsuak, ile hori izurtua, altua, nire tamainarako ezin hobe, gorputz sendoa, kamiseta motza daramanean, bere beso gihartsuekin eta janzkera modernoa duelarik, ondotik pasatzean ezinezkoa da bere ekarpena ekiditea, eta inguruan gauden guztiok, bere aldera biratzen dugu, bere edertasuna ikus dezagun.

Kontua da, Alaiari eta niri Iñaki gustatzen zaigula eta bion artean lehia ederra daukagula. Okerrena da, mutil madarikatu horri Alaia gustatzen zaiola, eta ni horren ondorioz nahiko penatuta nago. Egia esan, gehienbat horregatik gorroto dut Alaia.

Bihar ostirala izango da eta oporrak iritsiko zaizkigu, baina alde zurretik Matematikako azterketa egingo dugu. Nori bururatzen zaio azterketa oporren bezperan jartzea! Azkenean Saloura joango naiz, behingoz nire familiarekin eguzkia hartzera.

Heldu da ordua, eta hara abiatu gara. Bidaian zehar, telefono mugikorrarekin nabil. Amak esan dit segapotoa uzteko zorabiatu egingo naizelako, baina ni kasurik egin gabe hor nabil mezu batetik bestera. Denbora asko daramat pentsatzen ea noiz iritsiko garen Saloura, eta iritsi gara. Autotik atera orduko, botaka egin dut eta oso esperientzia txarra izan dut. Hobe amari kasu egin izan banio, laguntzeko prest dago eta.

Salou oso herri itsusi eta txikia da, baina dibertigarria. Apartamentuz eta pisuz beteta dago. Hotel gehienak, itsasorantz begira daude, baina nola ez! nirea, etxebizitzaz



josia. Inguruko apartamentuetako kideek, eguzkia nola hartzen duten ikusten ditut, baita hainbat teilatu ere. Hondartza luze eta ikaragarriak daude, tabernak non-nahi, baina nik bista ederrak ikusteko aukerarik ez dut.

2.egunean, hotelean sartu orduko, han zegoen igogailuko botoia sakatzen ari zen mutil bat, ezaguna egin zitzaidan. Aurrera nindoan heinean, hark zeraman kamiseta karratudun urdin eta gorria geroz eta ezagunagoa egiten zitzaidan eta azkenean konturatu nintzen Iñaki zela. Masailak gorritu zitzaizkidan, ez nintzen zorabiatu gutxigatik, hobe, bestela irrigarri geratuko nintzatekeen bere aurrean. Logelara joan, eta handik ez nintzen atera lehenengo lau egunetan. Amak medikuari deitzekotan egon zen, baina azkenean lasaitu nintzen pilula bat hartu ondoren, eta 5.egunean (opor erdiak pasa ondoren) igerilekura abiatu nintzen.

Halako batean, Iñaki agurtzera etorri zitzaidan, ni gorritu egin nintzen, eta nire masailak txerri batek dauzkan bezain itsusiak ziruditen. Urduritasunagatik, ez nekien non nengoen, Parisen, Gaztelaniako azterketan ... Alde egiteko gogoa neukan, baina hori eginez gero, barregarri geldituko nintzatekeen beraz, ez neukan beste erremediorik agurtzea baino. Ondoren, bakoitzak bere bidetik jo zuen. Nire begirada ezin nuen urrundu haren gorputz eta bainujantzi loredunarengandik.

Gau hartan, hotelekoek antolatutako festara joan nintzen, eta noski, bera ere han zegoen. Musika lasaia zenez, dantzan nenbilen. Iñaki gaztetxea hurbildu zitzaidan, baina oraingoan lasai nengoen. Bere begirada eta ahots leunak nirekin gustura zegoela zelatatzen zuen. Alaia izorratzeko momentua heldu zen, nire jokaera ez zen bidezkoa, baina egoera horri probetxua ateratzeko asmoa neukan.

Handik aurrera, arratsaldero biok bakarrik paseotxo bat ematen genuen hondartzan.

Goizero esnatzean, arratsaldeko bostak iristeko deseatzan egoten nintzen, bere esku zoragarriak ondoan nituela jakiteak zirrara sortzen zuen nire gorputz osoan. Momentu horiek gozatzekoak ziren. Pozik sentitzen nintzen bere ezpain leunak nirearen ondoan nituenean.

Baina bat-batean, dena aldatu zen. Ostiral hartatik aurrera, ez zidan kasu zipitzik ere egiten. Nire sentimenduak erabat aldatu ziren: maitasunetik gorrotora berehala pasa ziren. Halako batean, zergatiaz ohartu nintzen, eta beste neska bat ere gogoko zuelako. Nik horrelako jarrerarik ezin nuen jasan. Orain artaburu, muturzikin eta txepela zirudien. Oporrak zerotik hastea desio nuen: opor guztiak hondatu zizkidan eta negar zotinka logelatik atera gabe egon nintzen. Era berean, argi zegoen inozo horrek ez zeukala batere lotsarik. Egunak joan, egunak etorri, egoera berean jarraitzen nuen.

Etxera itzultzeko garaia iritsi zen, maletak prestatzen hasia nintzen. Orduak oso luze eta nekagarriak egiten zitzaizkidan, hileta-elizkizun batean egongo banintz bezala. Pentsatzen hasia nintzen, etxean geratu izan banintz, sufrimendu hori ez nukeela jasango.

Autoan sartzean, nire begi ziztrin horiek leihoaren ondoan zeuden, txiklea mastekatzen ari nintzen bitartean. Ama lo zegoen jada. Nire segapotoa eskuan nuela arraunean nenbilen haren mezu baten zain, baina oraingoan, itzaropena galdua neukan. Bidaia oso luzea egin zitzaidan. Ur-tanta batek adigabe ninduen, ondorioz, itzulerako bidaia motzagoa egin zitzaidan.



Etxera iristean nire aurpegiak tristura adierazten zuen, negua balitz bezala. Whatsappak neuzkan, eta horietako bat ñakirena zen. Berehala eskuak izerditu zitzaizkidan eta

zailtasunak neuzkan klik egiteko. Azkenean urduritasunez klikatu, eta honako hau jartzen zuen:

“ Barktu kuttuna, oso zortz jktu dt zurkin, azkn egn hauetn faltan bota zitut”

Beste Whatsapp bat:

-“Emngo al didzu bste aukra bt?”

Eta azkenekoan:

-“Zr mdz larnbtean betko plzn?”

Berehala ulertu nituen mezuak; Haserrea pasa gabe, baina pozez beterik zer erantzungo pentsatzen hasi nintzen.